

PAZKO EGUNA

Izadiak berak ematen digu, gure artean, Pazkoa ulertzeko biderik egokiena. Negua joan da, eldu da udaberria. Dana berri-zen ari da. Lurra jaxten ari da belar, landare eta zuhaitzez. Zuhaitzak ostu eta lorez. Txoriak abestiz eta umez...

Guzia biziberritzen, odolberritzen, ugaltzen eta pizten dakuguz.

Au da Pazkoa ere kristaurenzatat: maitasuna gerokeikeriaren garaille, askatasuna zapalaketaren garaille, bizia eriotzaren garaille, pakea gerraren garaille, zuzentasuna bidegabekeriaren garaille...

Zenbat gerokeikeria, zapalketa, morrontza, bidegabekeria, gezur, gorroto, zigor, gurutze eta eriotz!... Eta indartzen ari da mundu zabalean guzi onen aurka. Ugaltzen ari da maitasunaren, zuzenbidearen, pakearen, askatasunaren eta biziaren aldeko burruka ere...

Baifia burruka luzea da, lana zailla, aundiak bait dira "illunaren indarrak". Zenbat jende erortzen dan, zenbat erretzen, zenbat aspertzen eta galtzen! Zenbatek etsitzen duten...

Ametsak eta elburuak aundiak, lortzen dena txikia. Ez dute beren abalegiaren emaitzik ikusten. Siñesmen aundia behar da.

Jesús Piztua da auzentat eta danentzat Itxaropenaren eta Siñesmenaren iturri. Nolakait salbatuak, askatuak eta biziberrituak gaude errotik. Sustrain piztuak gaude eta bizirik.

Ez gaude zerao illik, badugu biziazen azia. Ez gaude zerao loturik, badugu askatasunaren argi-izpia. Itxaropena eta siñesmena behar ditugu. Oiek galdutakoan guzia gidu duguz. Denok entzun behar ditugu Ebanjelioko itz aiek: "Adore seme, adore alaba, zure siñesmenak salbatu zaitu".

Ez goaz berriro Sinai-mendiara. Agar neskaumearen ume izateko, ots, morroi izateko. Jerusalem berria da gure erri, gizarte berria goaz, gure aberria. Sara da gure ama. Ez gera gehiango morroi, seme bizik, askatasunaren seme, alegia.

Beraz Pazko eguna, askatasun eguna dugu, egiazko aberria arkitzen dugun eguna. Salbazio azia erituen dugun eguna. Itxaropen eta siñesmenez jaxten geran eguna.

Utz ditzagun burutapen illunak. Begira dezaigun mendi armetik datorrigun eguzkiari. Diridir egiten du paradisuak zapi ibaietan. Eta ez ditu agortuko. Ur bizia darie zapietara.

Kantauriko itsasoa bat egingo dute. Eta Kantauriko itsasoa edatuko zaie berriro indartu ditezten.

Launbat santuko ur-berriak ezetu eta su-berriak beotu gaitzala askatasunaren seme izateari gehiango uko egin ez dezaigun.

GALDERA SAKON BAT

Aste hauetan jakinarazi diren zifra eta zehaztasun batzuek, aspaldiko eta badakia bat para dute berriro denon begien aurrean.

Alde batetik, droga-harrapaketa gaitzak gertatu dira, Marseillaen larriena: ukaldi bakar batez 430 kilo heroina bilduta. Sail honetan eza-gutzaile direnek azaldu dutenez, miloi bat txerto-neurri baino gehiago lor litezke keta horretatik. Jakinaenez, bestalde, heroina da drogetan «bortitzena»; eta hartzen duten gehienak, droga «bigun» eko-higuindurik eta sorturik lgaroak dira heroinara. Hots, ameriketar politikak kalkulatu duenez, Marseillaen barruan eta uen hartan bertan beste zortzi edo hamar tonelada heroina zegozkean. Kontuak hortik aterala!

Gure mundua benetan ezin jan sanik, miloika drogatzen dira, gero eta gehiago; gure bizikera egiazki eraman-ezina bait litzan.

Zer diote psikologiariek? Hona hemen egun hauetan xez zabaldu diren beste zifra batzuk:

1.—Fraitzian bakarrik, psikosialik eta neurosiak zaindu beharrez (erotasun osoak barne) 1969-an bakarrik, 722.000 konsultazio edo ikustamen deklaratu dira ofizialki (hiru urtetan % 20 gehiago). Euskal Herriaren mailara itzuliz gero, hortaz, 40.000 bat urtean.

2.—Parisen eta Parisiko inguru-

etan, lan egiteko ezintasunik gehientasunak, psikologiazko eritasunen ondorio dira: % 24. Lautatik bat jota.

3.—Hogei urte honetan (1950-1970) buru-eritasun larrien kopurua (alegia, lanik ezin egitea ekarki dutenena) laukoiztu egin da, lau aldiz handiago egin. j

Zifra bildurgarri horiek Fraitzian-koak izanik ere, oso antzekoak bide dira industria duten erresuma «hirikor» guztietan «komunista erresumak barne».

Eta ondorioa nabarmen: «Il serait difficile de ne pas voir dans cet accroissement un reflet de l'adaptation actuelle des individus à certains aspects de la civilisation» (Dr. Escoffier L.).

«Zibilizaioa» ahal da, ordea, horren kaxoa? Ala, «sistema»? Beste hitz batez, kapitalismoa ala industria? Politika ala teknika?

Galdera hau ezin sakonago da. Eta psikiatrek neur dezakete ongienik agian erantuz gero garrantzia; beren barne-eginezkoak lasaltzea nahi luketen miloika neurotik horiek psikiatregiana jotzen bait dute laguntza eske. Zein laguntza emango, ordea? Laguntzarik eman behar ahal zaie?

Overney-ren heriotzaz eta «gachisme»-az mintzo zelarik, argiro galdetzen zuen berriki kasalari batek: «Qui opprime le plus, l'usage ou le système?». Euskaraz, zerk zanpatzen du gehienik: lantegiak ala sistemak? Honetan da dena.

Zanpatzailea SISTEMA baldin bada, soluzioa politikaren mailakoa da, eta iraultzaren bidez konpon daiteke arazoa. Kasu honetan kondanatu egi nbehar dira psikiatrak (karitatea kondanaten den bezala), psikiatria burgesiaren tresnatzat arbiuatu behar da, eta «ero-tzat jotzen direnak iraultzaile basterik ez dira. «Eroak» dabilta zuzen; eta «zuhurrak» alienatuak baizik ez dira. Eroeteak eta gartzelak elkarren kide. Psikiatrak eta politikak anaia bikki. Zenbait ezkerarren artean azterpide hau onartzen dela gauza nabarmena da. rogaren erotasunaren emendioa, «sistema»-ren ondorioa da.

Baina kapitalismorik ez duten erresuma marxista-leninistetan ere, eta nahiz zentsurak barneko berri urri iraztera utzi, badakigu fenomeno antzekoak gertatzen direla: Polonian eta Txekoslovakian, esate baterako.

Nekez esan daiteke, beraz, sistema dela drogaren eta psikopatien giltzarria. Ez da ahantzi behar, bestalde, sistemaren kontrakto politikagizonak, hain zuzen ere «ero-tzat hartuak direla URSS-en, eta eroretetan sartuak. Grigorenko jenerala, esate baterako, Krimaeko tatar abertzalea, erootxe batetan dagu preso aspaldiko honetan; eta kaso hau eta honelako beste anitz kondanatzeko, hogei ortodoso frantsesek egin dute Otsailaren 16an dei bat, gezurrezko «ero» horientzako guztietzak askatasuna eta dinatasuna eskatzu. Komunista herrialdeei dagokienez, beraz, egia soila aipatu dugu, gartzelak eta erootxeak elkarren kideak direla esanez.

Zanpatzailea, berriz, ZIBILIZA-

ZOA baldin bada, ez drogak ez erotasunak dute politikazko sustrairik. Kaso honetan, alferrik ari da psikiatra jendea sendatu nahian; adimenaren gaitz horiek konponketarik ez dute, eta iraultza bera ez da aski. Zibilizazio osoa ukatu behar da.

Ohar gaitzen gauza batez: bigarren hipotesi honetan, hippy-ek lutekeala egia. Henry Laborit biologiari eta pentaszaile apartak aspaldi danik idatzia duenez.

Freud-ek, horrela, joan den mendean Hegel-ek bezalatsu, bi joera politikoki eman ditu. Eskuindarra bera: eritasuna sendatzeko, «integratu» egin behar da eria gizarlean, «super-ego»-aren debekua eta helburuak zuzenetsiz eta onarrariz; eta ezkerterra bestea: eritasuna sendatzeko modu bakarra, gizarlekera honetatik heldu zaizkigun ideiak eta baloreak funditu behar dira, iraultza egin behar da.

Baina politikoa ez den hippy-ek ukara ere eman dezake: buru-eritasun horiek zibilizaziotik berekiki heldu bait dira, etsi dezagun, eta goazen Indira beste bide berri eta teknikagabe baten bila. Dro-gazaleak ere talde honetara bil itezke azken funtsean.

Halaz guztiz ere, arazoa zailago da oraindik; biologiarren eragina inolaz baxter ezin daitekealako. Gizonaren trajeria tirabira zeil honetan mamitzen da: alde batetik gizarlearen determinismoa dago, gizarleak dakarkigun mugaketa; eta beste aldetik, biologiarrena, geure gorputzak eta kirio-sistemak damagikuna.

Demagojia errazei lagata beraz, zer konpon daiteke iraultza baten bidez, eta zer ez? Noraino iristen da lantegiaren beraren zapalketa, eta nun hasten sistemarena?

Ez dut nik erantzun.

LARRSORO



«GAZTEOK, HAUXE NAHI DUGU»

—Lana nahi dugu.

—Lantegi barruan zerbait erabakitzen denean, guk ere parte hartzea.

—Erantzukizunez joka ahal izatea.

—Gure iritziak agertarazteko eskubidea, zeren eta eguneroko lanaren esperientziak asko bait dezake zenbait antolaketala alderditan.

—Langile eta gazte geranez, gure nortasuna aintzat har dezatela.

—Aseguroak ongi antolatutik egoitea.

—Lantegi barruan arriskua eta osasunaren aurkako giroa desegitea.

—Gazte haroan fritua eta etekina eskaini ondoren, zahartzaroan ez gaitzatekoz baztertu.

—Elkartzeko eskubide egi bihurtzea beharrezkoa zaigu.

—Lan orduak mugatuz denbora libre edukitzea ere bai.

—Ikasi nahi dutenentzat, irakaskintza hobekiago antolatzea.

—Gure solas eta dibersioak geuk antolatutik egotea.

—Famili barruan ere arretaz eta erantzukizunez ekiteko eskubidea.

—Egiazko sindikatoa bertako ar-

duradunak langileen egiazko ordezkariak izan ditezten».

Ona hemen Catalunya eta Balearsko gazteriak 1968 garren urtean zuzentzen dituen eskabideak. Eskabide horiek orain eta hemen egin egin izan balira erantzun zabalagorik jasoko genduke. Benetan kontzientziadun gazteria gutxi batzuek baino ez dira. Bainen hauek, posible daiteken neurrian, askoz erantzun zorrotzagoak emango lituzteke, zan ere, zuzendu beharrezkoak asko izanagatik, sustraietara joo luke.

Lehen aipatu dugun eskabide zerrrenda dela eta, eskuratu ahal izateko, azterketa orokor eta erabakete egin beste erremedioerik ez zaio galdituko. Sindikalgintza ezezik, politikoa lanak ere zer ikusi hango izango luke. Lantegi barruan giro hobeaen jabe izatea, errespetoa eta representatibidatea gordetzea, t.a. posible ote aldakuntza sakanagoaren baitan izan ezik?

Hemen dago kaxoa.

Sarritan, lantegi barruko burrukan, langile gaztea baztertua izan da. Txori-burutzat, jo izan dute maiz, bidegabekeriaren bildur izan da «zentzudun militante heldua». Lantegian, berriz, hogeitabost urte bitarteko gazterien proportzioa handia da benetan. Estructura edo erakundean bertan bideak zabaldu nahiean edo, botoak emateko t.a. gazteari arretaz begiratzen zaiola dirudi. Baina irudimen hutsa basterik

ez duzu. Izan ere soldaduzkako eginbeharrekoak asko mugatzen ditu burruka garaian.

Zer egin handia dago. 1970 garrenean, laneratu berriak ziren gertxoak geldokizun batetan, dakusguz, asko dira euren eskubide, t.a. ezagutzen ez dituzten gazteak, % 44 egia esateko, eta are gehiago horretara ardura eta arretarik ez dutenak % 48.

Zenbait taldeek, beregain hartu nahi izan dute gazteriarren esnatzearen egiteko zail bihurria, eta lenari gogotsu ein diote. Bainen, taldekeriatan eroritakoak ere ez dira gutxi. Badirudi, taldeari interesgarri zaien neurrian eta eran bakarrik laneratu bide direla. Eliz mugimenduak, gara bateko JOC esate baterako, ez zion langileari eskaltasunez erantzun. Beste zenbaitet, politikoa kontzientzia itsatsi nahi izan dute, bainen eguneroko zeregin eta burrukarako ez dute gazteak gertu eta preparamu. Horrelakorik ere, zuk ezagutuko duzu noski.

Azkenik, han eta hemengo agintedunek, hitz ederrak lalgi dizkigute gazteriarreko gailu erabillaz: gaztea da gure esperantza, etorkizuna gazteriarrengan dago, munduaren udaberria dugu gazteria, ueste osoa gazteriarrengan dadukat, t.a. Hitzak, hutsak, hutsak, basterik ez.

Mikel Ugalde